

8. ELKARTEAREN AGIRIAK

Kirol elkarten jardueran erabilgarri diren hiru agiri eredu dituzu atal honetan:

- ✓ Kirol elkarteetarako estatutu eredia eta eraketa agiria.
- ✓ Kirol ekitaldien nahiz urteko jardueraren balantze ekonomikoa biltzeko taula.
- ✓ Eskola kiroleko jarduerak aurrera eramateko, ikastetxe eta kirol elkarten artean sinatzeko hitzarmena (E1 hitzarmena).



8.1 ESTATUTU EREDUA ETA ERAKETA AKTA

Zenbaitetan elkaratearen estatutuak aldatu eta osatu egin behar izaten dira. Hori dela eta, egoki iruditu zaigu esku-liburu honetan elkaratearen estatutuak eta eraketa agiria euskaraz jartzeko aukera badagoela aditzera ematea. www.euskadi.net webgune kirol atalean aurki daiteke elkarateen betebeharren inguruko azalpen zabala.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzak proposatzen dituen ereduak:

A. KIROL ELKARTEETARAKO ESTATUTU EREDUA (29/89 Dekretuaren 3.b atala).

ELKARTEAREN ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA: UNIPERTSONALA

I. ATALBURUA:	ARAU OROKORRAK
II. ATALBURUA:	BAZKIDEAK
III. ATALBURUA:	BETE BEHARREKO AGIRIAK
IV. ATALBURUA:	ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEAK
I. SAILA:	BATZAR OROKORRA
II. SAILA:	LEHENDAKARIA
V. ATALBURUA:	HAUTAKETA PROZEDURA
VI. ATALBURUA:	ARAU EKONOMIKOAK
VII. ATALBURUA:	ESTATUTU ALDAKETA
VIII. ATALBURUA:	KLUBA DESEGITEKO ARRAZOTIAK
IX. ATALBURUA:	ZIGORRAK JARTZEKO ARAUBIDEA



AREN ESTATUTUAK

I. ATALBURUA

ARAU OROKORRAK

1. ATALA.- irabazi asmorik gabe-ko talde pribatua da. Legeari dagokionez bere nortasuna du, baita bere kabuz jarduteko gaitasuna ere. Taldearen helburu bakarra honako hauxe da: kirola eta jarduera fisikoa sustatzea, horretarako, lehiaketa ofizialetan parte hartuz eta ondorengo kirol-alor hauek landuz:

Kirol-mota nagusia:.....

Beste kirol-mota batzuk:.....

2. ATALA.-k antolamendu, inskribapen eta funtzionamenduari dagokienez, honako hauek hartuko ditu aintzakotzat: Euskal Herriko Kirolari buruzko 14/1998 Legea, otsailaren 14ko 29/1989 Dekretua, honako estatutu hauek, gai honi dagokionez erabilgarri diren gainerako arauak eta Batzar Nagusian zein gainerako zuzentza-erakundeetan hartutako gainerako erabakiak.

3. ATALA.- 200..eko(a)ren(e)an eratu zen. Kirol Elkarte eta Federazioen Erroldan inskribatu eta estatutuak onartzerakoan, otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuan ezarritakoak errespetatu beharko dira.

4. ATALA.-, praktikatzen duen modalitate bakoitzaren arabera,ko Lurralde Federazioan izango da bazkide. Horren ondoren, federazio horren/horien estatutu, araudi eta xedapenak ezarri ahal izango zaizkio klubari.

Klubean praktikatzen den kirol-mota nagusian ez ezik, gainerako kirol-jardueretan ere kirol-sail bana osatuko da

5. ATALA.- Kirol-klubaren helbidea(e)n egongo da eta bere elkarte-egoitza..... kalean. Lekuz aldatuz gero, Euskal Autonomia Elkarteko Kirol Elkarte eta Federazioen Erroldan eman beharko da helbide berriaren berri.



II. ATALBURUA

BAZKIDEAK

6. ATALA.- Kluba osatzen duten bazkide guztiak berdin-berdinak izango dira eskubideei eta betebeharrei dagokienez. Ezin izango da, beraz, inor baztertu arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera pertsonal zein sozialengatik.

7. ATALA.- Bazkide-kopuruak ez du mugarik izango. Hala ere, lehendakariak bazkide gehiago ez onartzea erabaki lezake kirol-instalakuntzen kapazitateak dituen mugak aintzakotzat hartuta.

8. ATALA.- Kirol-klubeko kide izan daitezke honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak:

- a- Batzar Orokorrean ezarritako adina izatea.
- b- Bazkide izateko sarrera-kuota ordaintzea.
- c- Kirol-klubak dituen helburuetan interesa izatea.
- d- Beste bi bazkideren babesa izatea.

9. ATALA.- Klubeko bazkide izateko eskabidea klubaren lehendakariari helarazi beharko zaio idazki baten bitartez. Lehendakariak aurreko atalean ezarritako betebeharrak errespetatzen diren ala ez ikusi ondoren, eskabidea onartu edo atzera botako du. Erabaki horren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik aurkeztu.

10. ATALA.- Klubeko bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a- Klubak berariaz dituen helburuak lortzen laguntzeko eskubidea, estatutu hauetan eta indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituz.
- b- Bazkideak nahi duenean klubetik bereizi ahal izateko eskubidea.
- c- Klubaren jardueren berri izan eta bertako agiriak aztertzeko eskubidea.
- d- Nork bere iritzia askatasunez emateko eskubidea.
- e- Klubeko gobernukideak eta ordezkariak aukeratzekoan, hautagai zein hautesle izateko eskubidea, betiere, adin-nagusitasuna eta jarduteko gaitasun osoa izanez gero. Adinez nagusi ez diren taldekideek, hala ere, batzar orokorretan beren iritzia emateko eskubidea izango dute.



11.- ATALA.- Honako hauexek dira bazkideen betebeharrak:

- a- Estatutuotan ezarritakoak eta Batzar Orokorrean zein Lehendakaritzan erabakitakoak onartu eta errespetatzea.
- b- Karguren bat izanez gero, ardua horri dagozkion zereginak betetzea.
- c- Lehendakaritzak erabakitako diru-kopuruak ordaintzea.
- d- Klubaren xede den kirol-jarduera zabaldu eta praktikatzea.

12. ATALA.- Bazkide izateari utziko zaio:

- a- Norberak hala erabakita, kluba utziz gero.
- b- Bi hiruhileko kuotak jarraian ordaindu gabe utzi eta Lehendakaritzari atzerapena zergatik gertatu den behar den moduan justifikatzeko arrazoirik eman ezik.
- c- Lehendakariak horrela erabakita.

13. ATALA.- Taldekideei zigorrak ere jar dakizkieke, baldin eta beren zereginak betetzen ez badituzte. Zigorrak eskubideak aldi baterako galtzea ekar lezake, baita klubetik betiko botatzea ere. Dena dela, ezin izango da klubetik bazkiderik bota aurretiaz zigor-espedita tramitatu gabe eta bazkideari bere iritzia emateko aukera eskaini gabe.

III. ATALBURUA

BETE BEHARREKO AGIRIAK

14. ATALA.-k behar den moduan eta eguneratuta izan beharko ditu honako liburu hauek:

- a- Bazkideen errolda-liburua.
- b- Akta-liburua.
- c- Kontabilitate-liburua.
- d- Hala badagokio, zorren edo ondasunen tituluak jasotzeko errolda-liburua.

Kirol-jarduera nagusizat hartutako modalitatearen arabera klubari dagokion Lurralde Federazioak behar bezala diligentziatu beharko ditu liburu horiek guztiak.

15. ATALA.- Bazkideen errolda-liburuan kide guztien izen-deiturak, helbidea eta klubean ordezkari, gobernukide edo administratzaile modura arduraren bat izanez gero, kideari dagokion kargua ere bai.



Era berean, argi adieraziko da kide bakoitza noiztik den bazkide eta, klubetik kanpo egonez gero, noiz arte izan den bazkide. Klubean zeregin edo arduraren bat izan badu, zein egunetatik zein egunetara arte iraun duen jakinaraziko da liburu horretan.

16. ATALA.- Akta-liburuan, batzar orokorretan egindako bilerak adieraziko dira: bilera-egunak, partehartzaileak, gaien zerrendak eta hartutako erabakiak. Klubeko lehendakariak eta idazkariak izenpetu beharko dituzte agiri horiek.

17. ATALA.- Kontabilitate-liburuan ondorengo hauek agertuko diraari dagokionez: klubaren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak, diru-sarrerak eta gastuak. Era berean, diru-sarreraren jatorriaren berri emango da eta dirua zertan erabiltzen den zehaztuko da.

IV. ATALBURUA

ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEAK

18. ATALA.- Honako hauexek diraaren jardute-sailak:

- a- Batzar Orokorra.
- b- Lehendakaritza.

I. SAILA

BATZAR OROKORRA

19. ATALA.-eko Batzar Orokorra izango da klubeko gobernu-erakunderik gorena eta, bertan, bazkide guztiek parte hartu ahal izango dute.

20. ATALA.- Batzar Orokorrak, gutxienez, honako eginbehar hauek izango ditu:

- a- Klubaren lehendakaria aukeratzea, boto pertsonal, aske, zuzen eta sekretuaren bidez.
- b- Klubaren aurrekontuak eta kontuak onartzea.
- c- Estatutuak eraldatzea.



- d- Kluba desegitea.
- e- Mailegu bidez dirua hartzea.
- f- Ondasun higiezinak jabez aldatzea edo kargatzea.
- g- Eskuz alda daitezkeen zor- edo ondare-tituluak ematea.
- h- Lehendakariaren aurkako gaitzespen-eskea onartzea.

21. ATALA.- Batzar Orokorra, gutxienez, urtean behin bilduko da ohiko bileran. Bertan honako hauek onartuko dituzte: aurreko urteko txostena eta balantzea, jarduera-proiektua eta hurrengo urterako aurrekontua. Horrez gainera, bilera bereziak ere egin daitezke aurreko ataleko c), d), e), f), g) eta h) puntuei buruz hitz egiteko.

22. ATALA.- Klubeko lehendakariari dagokio ohiko Batzar Orokorrerako deia egitea. Hori egitea ezinezkoa balitz edo lehendakariak bilerarako deia egiteko zeregina beteko ez balu, bazkide-talde batek egin lezake deialdia, talde horrek gutxienez bazkideen %5 bilduz gero.

Batzar Orokorrak bilera berezia egin dezan, klubaren lehendakariak egingo du deialdia edo, bestela, edozein bazkide taldek egin dezake deialdia, taldean gutxienez bazkide guztien %20 bilduz gero.

23. ATALA.- Batzar Orokorrerako dei egiteko, bilera ohikoa zein berezia izan, klubeko oholean iragarki bat jarriko da, gutxienez hamabost egun lehenagotik. Horrez gainera, aztertuko diren gaien zerrenda eta gaien buruzko dokumentazioa ere jarriko da bertan ikusgai.

24. ATALA.- Batzar Orokorra, ohikoa zein berezia, baliagarritzat joko da lehen deialdian gutxienez bazkide guztien %50 bertan izanez gero. Bigarren deialdian, berriz, nahikoa izango da bazkideen %10 bertaratzea eta, azkenik, hirugarren deialdia ontzat hartuko da partehartzaile-kopurua edozein dela ere. Dena den, bigarren eta hirugarren deialdien artean, gutxienez 24 orduko tartea utzi beharko da batetik bestera.

Debekaturik dago batzar orokorretan inoren izenean botorik ematea.



II. SAILA

LEHENDAKARIA

25. ATALA.- Lehendakaria izango da klubean hartutako erabakiak bideratu eta gauzatuko dituena. Era berean, klubari dagozkion gai administratibo eta ekonomikoak bideratzeko zeregina izango du bere esku eta, betiere, Batzar Orokorrean erabakitako nondik norako eta jarraibideak errespetatu beharko ditu.

26. ATALA.- Lehendakaria da legez klubaren ordezkari, bera izango da Batzar Orokorrak egindako bileretan buru eta bertan hartutako erabakiak betearaziko ditu. Bere esku geratzen da klubaren zeregin guztiak kudeatzea, berariaz Batzar Orokorraren esku utzitakoak salbu.

27. ATALA.- Lehendakariak, egoki iritziz gero, nahi beste aholkularitza eta laguntza-talde era ditzake elkartearen kudeaketa bide one-tik joan dadin. Dena dela, erakunde horiek ez dute erabakirik hartze-ko inolako ahalmenik.

28. ATALA.- Lehendakaria lau urtez behin hautatuko dute taldekide guztiak zerrenda itxien sistemaren bitartez. Hautaketa-saioan botoa emateko eskubidea duten bazkide guztiak har dezakete parte. Boto bana emango dute guztiak askatasun osoz, zuzenean eta sekretua gordeta. Bakoitzak bere botoa eman beharko du eta ezin izango da botorik eman ordezkarien bitartez. Lehendakari diharduenak lanean jarraituko du ondorengoa postuaz jabetu arte.

29. ATALA.- Batzar Orokorrak erantzukizuna eska diezaioke lehendakariari gaitzespen-eskabidea eginez. Berariaz horretarako deituko den batzarrean hiru bazkide-tik bi kudeaketaren aurka azalduz gero, onartu egingo da gaitzespena. Gaitzespen-eskabidea lehendakariari berari zuzenduko zaio idatziz, bazkide guztien %20 ekintza horren alde egonez gero. Batzar Orokor Berezi horretan ez da gaitzespen-eskeaz beste gairik eztabaidatuko eta erabakiren bat hartuko da horretaz.

30. ATALA.- Lehendakariak bere postua utziko du otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuaren 32. atalean ezarritako arazoietakoren bat tartean izanez gero. Klubeko Lehendakaritza hutsik geratzen denean, arestian aipatutako arau horretan ezarritakoari jarraituko zaio.



31. ATALA.- Lehendakari-zereginetan jardunez gero, ezin izango da antzeko ardurarik izan beste kirol-elkarte edo -taldeetan.

V. ATALBURUA

HAUTAKETA PROZEDURA

32. ATALA.- kirol klubaren hauteskunde-prozedura otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuan ezarritakolari jarraituz egingo da.

VI. ATALBURUA

ARAU EKONOMIKOAK

33. ATALA.- kirol klubak bere aurrekontu-eta ondare-araudia errespetatuko du. Diru-sarrera guztiak, baita kiroletan lortutako irabaziak ere, klubaren helburua lortzeko erabiliko dira oso-osorik. Ezin izango da inola ere bazkideen artean irabazirik banatu.

34. ATALA.- klubaren kirol-jarduerak burutzeko erabiliko diren baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

- a- Bazkideek eurek emandako laguntza ekonomikoak.
- b- Erakunde publikoetatik eskura daitezkeen dirulaguntzak.
- c- Klubak antolatutako kirol-jardueretatik lor daitezkeen irabazi guztiak.
- d- Klubaren ondasunetatik etor daitezkeen fruituak, errentak edo interesak.
- e- Klubari eman dakizkiokeen opariak, maileguak edo kredituak.
- f- Beste edozein eratako baliabideak, ohikoak zein ustekabeen lortuak.

35. ATALA.- kirol klubak bere ondasun higiezinak sal ditzake, maileguz dirua eskuratu eta zorren zein ondasunen tituluak emititu, betiere, otsailaren 14ko 29/1989 Dekretuaren 42. atalean ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatuz. Kirol-instalakuntzak edo lurrak saltzetik esku-



ratutako irabaziak antzeko helburua izango duten ondasunak eraiki edo hobetzeko erabiliko dira oso-osorik.

36. ATALA.-

- a-k emitituta-ko zor-edo ondasun-tituluak nominatiboak izango dira.
- b- Klubak berariaz horretarako izango duen liburu batean inskribatuko dira tituluak eta, era berean, gainerako transferentzia guztiak ere bertan idatziko dira.
- c- Titulu guztietan azalduko dira honako argibide hauek: balio nominala, emisio-eguna eta, hala badagokio, interesa eta amortizaziorako epea.
- d- Ezin izango da inola ere titulu liberatuak jaulkitzeko baimenik eman.

37. ATALA.-

- a- Klubeko bazkideek baino ezin izango dute zorren titulurik eskuratu, baina, hala ere, tituluen jabe izateak ez dio inori aparteko eskubide berezirik emango. Salbuespen bakarra: indarrean dagoen legeriaren arabera, aurretiaz ezarritako interesak jasotzea.
- b- Era berean, klubeko bazkideek baino ezin izango dituzte ondasun-tituluak eskuratu.
- c- Zorren edo ondasunen tituluak transmititzeko baldintzak Batzar Orokorrak ezarriko ditu. Tituluek ez dute inoiz dibidenduak edo irabaziak eskuratzeko eskubiderik emango.

VII. ATALBURUA

ESTATUTU ALDAKETA

38. ATALA.- Honako estatutu hauek ezin izango dira aldatu, berritu edo baliorik gabe utzi, berariaz horretarako deitutako Batzar Orokor Berezian izan ezik. Horrelako erabakiren bat hartu ahal izateko, bilerrara bildutako bazkideen bi herenek onartu behar dute gehiengoz. Estatutuak aldatu nahi izanez gero, Kirol Federazio eta Elkarteen Erroldari dagokionez, hasierako onarpena lortzeko egindako pausu administratibo berberak eman beharko dira.



VIII. ATALBURUA

KLUBA DESEGITEKO ARRAZOIAK

39. ATALA.- Kluba desegin edo bertan behera utzi ahal izateko, dagokion agintari judizialaren erabakia beharko da derrigorrez. Dena den, legez ezarritako arrazoiez gainera, badago kluba desegiteko beste modu bat, alegia, berariaz horretarako deitutako Batzar Orokor Berezira bildutako bazkideek bi hereneko gehiengoz horrela erabakitzea. Nolanahi ere, hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio Kirol Federazio eta Elkarteen Erroldari.

40. ATALA.- Kluba deseginez gero, zuriketa egin ondoren geratzen den ondarea klubaren kirol-mota nagusiari zegokion Euskadiko Federaziora joango da (edo, bestela, kirol horretako Lurralde Federaziora). Horren aurretik, Euskadiko Kirol Batzordeak txostena osatu beharko du.

IX. ATALBURUA

ZIGORRAK JARTZEKO ARAUBIDEA

41. ATALA.- Kirol Elkarteak izango du diziplina alorrean bere erabakiak hartzeko eskubidea, joko- eta lehiaketa-arauak hautsi zein kirol-jokabideen aurka joz gero, betiere, Kirol Jarduerarako Araubidea ezartzeko urtarrilaren 10ean onartutako 7/1989 Dekretuan azaldutakoari jarraituz, 14/1998 Legea garatzeko hartutako gainerako erabakiak aintzat hartuta eta berariaz erabilgarri diren araudiak eta bere erakundeek gehiengoz hartutako erabaki guztiak errespetatuta.

....., 200...ekoak

KLUBAREN ZIGILUA

LEHENDAKARIA



B. KIROL ELKARTEAREN ERAKETA AGIRIA

_____, 200 (e)ko _____ (a)ren a

HONAKO HAUEK BILDURIK:

_____ jaun/andrea, nagusia,
 NA zk. _____ duena.
 Helbidea: Kalea _____ zk. _____ Solairua ____
 Posta kodea _____ Herria _____

_____ jaun/andrea, nagusia,
 NA zk. _____ duena.
 Helbidea: Kalea _____ zk. _____ Solairua ____
 Posta kodea _____ Herria _____

_____ jaun/andrea, nagusia,
 NA zk. _____ duena.
 Helbidea: Kalea _____ zk. _____ Solairua ____
 Posta kodea _____ Herria _____

_____ jaun/andrea, nagusia,
 NA zk. _____ duena.
 Helbidea: Kalea _____ zk. _____ Solairua ____
 Posta kodea _____ Herria _____

_____ jaun/andrea, nagusia,
 NA zk. _____ duena.
 Helbidea: Kalea _____ zk. _____ Solairua ____
 Posta kodea _____ Herria _____

AZALTZEN DUTE

Bildutako pertsonak kirol modalitate hau/hauek
 bultzatzeko asmoz Kirol Elkartea sortu nahi dute, 14/1998 Legea,
 Euskadiko Kirolarena eta 29/1989 Dekretuaren arabera, eta horre-
 tarako, eraketa-agiri hau sortzen dute honako klausulen arabera.



KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Bildutako pertsonak agiri honen bidez _____

_____ kirol elkarteak eratzen dute, nortasun juridikoa duena, _____ kirol modalitateak bultzatzeko.

BIGARRENA.- Aipatutako kirol elkarteak 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena, 29/1989 Dekretua, eta akta honen 1. eranskinean agertzen diren estatutuen arabera arautuko da. Agiri horiek Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara zuzenduko ditu onartu eta inskribatu ditza.

HIRUGARRENA.- Fundatzaileek egintza honetan izendatzen dute _____ jaun/andrea kirol elkartearen Presidente kargurako, dagokion hautes-prozesua zabaldu eta egin arte. Pertsona horrek kargua onartzen du eta aitortzen du ez duela legezko bateraezintasunik edo debekurik.

LAUGARRENA.- Fundatzaileek, baimentzen dute _____

_____ kirol elkartearen idazkari dena, hau da, _____ jaun/andrea, Eragiketa-Akta eta Estatutuak Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzeko behar den edozein azalpen-agiri, zuzenketa edo moldaketa (baita Estatutuak ere) egiteko.

Eta honela gera dadin izenpetzen dituzte agiri honen bi aleak goiburukoan aipatutako data eta lekuan

_____ jaun/andrea _____
(sinadura)

_____ jaun/andrea _____
(sinadura)

_____ jaun/andrea _____
(sinadura)

_____ jaun/andrea _____
(sinadura)



8.2 BALANTZE EKONOMIKOA BILTZEKO TAULA

KIROL EKITALDIA:			
DIRU SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTU ETA BALANTZEA EGITEKO OINARRIZKO GIDA			
GASTUAK	ZENBATEKOA	SARRERAK	ZENBATEKOA
KIROLARIEI ORDAINDUTAKOAK: - Ordainketa finkoak - Diru sariak..... - Ordezkarriak..... KIROLARIEN GARRAIOA, MANTENUA ETA OSTATUA: - Garraioa - Ostatua - Mantenua TROFEOAK ETA OROIGARRIAK: - Trofeoak..... - Oroigarriak PUBLIZITATEA: - Inprimategia, kartela, aldizkaria edo liburuxka..... - Bestelakoak ANTOLATZE GASTUAK: - Instalazio alokairua - Prestaketa lanak - Segurtasuna - Osasun zerbitzua - Megafonia..... - Epailak eta arbitroak..... - Komunikazio gastuak (telefonoa, telekopia) - Bulegoko materiala - Gainerakoak ASEGURUA		SARREREKIN BILDUTAKO DIRUA..... LEIHATILAKO DIRUA KIROLARIEN IZEN EMATEAK DIRU LAGUNTZAK: - Udala - Foru Aldundia - Eusko Jaurlaritza - Gipuzkoako Federazioa..... - Euskal Federazioa - Espainiako Federazioa - Kirol Kontseilu Gorena - Beste batzuk..... ESKUBIDEAK: - Udala - Bestelako eskubideak..... PUBLIZITATEA: - Finkoa - Aldizkari, kartel eta komunikabideak..... - Emanaldi eskubideak GAINERAKOAK: - Ekitaldiaren inguruko material salmenta dela-eta lortutako diru sarrerak; zozketak - Merkataritza etxeen dohaintzak..... - Bazkideen dohaintzak..... - Beste batzuk.....	



KIROL EKITALDIA:			
DIRU SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTU ETA BALANTZEA EGITEKO OINARRIZKO GIDA			
GASTUAK	ZENBATEKOA	SARRERAK	ZENBATEKOA
KANON ETA ESKUBIDEAK:			
- Federazioa			
- Bestelakoak			
KREDITU INTERESAK			
PERTSONALAREN GASTUAK:			
- Soldata			
- Gizarte Segurantzaz.....			
- Bidaia gastuak			
GAINERAKOAK:			
- (zehaztu)			
GASTUAK GUZTIRA		SARRERAK GUZTIRA	



8.3 E1 HITZARMEN EREDUA

ESKOLA KIROLEKO JARDUERAK AURRERA ERAMATEKO, IKASTETXE ETA KIROL ELKARTEEN ARTEAN SINATZEKO HITZARMENA

_____, _____ (e)ko _____ (a)ren _____ a

Alde batetik, _____ ikastetxeko zuzendaria den
_____ jauna / andrea,

eta, beste alde batetik, _____ kirol elkarteko lehendakaria
den _____ jauna / andrea.

ADIERAZTEN DUTE:

-160/1990 Dekretuaren 11. artikulua dioenaren arabera, ikastetxeak dira, eskola kirola egiteko esparru nagusia, eta haiei dagokie, prestakuntza, antolakuntza, zein administrazio aldetik, ikasle guztiei kirolean aritzeko aukera ematea.

-Aipaturiko dekretuaren artikulua horren arabera, ikastetxeek, kirol elkarteekin batera lan egiteko bideak zabaldu ditzakete, eskola kirola bultzatzeko.

-Eskola kirola egiteko azpiegitura esparru nagusia ikastetxea den bezala, kirol elkarteak dira, adin batetik gorako gazteak kirolean aritzeko azpiegitura logiko eta berezkoena, eta hala da bete betean, derrigorrezko eskolatze aldia amaitzen dutenetik aurrera.

_____ kirol elkarteak gai da, zenbait zerbitzu tekniko eskaintzeko _____ ikastetxeari, honek antolatuta eta egiteko dituen eskola kiroleko jardueretan

-Hori guztia hala izanik, _____ ikastetxeak eta _____ kirol elkarteak elkarren onerako dela ikusten dute kirol elkarte horiek ikastetxeko ikasleek egiten dituzten eskola kiroleko jardueretan parte hartzea.

KLAUSULAK:

LEHENA: _____ kirol elkarteak honako zerbitzu teknikoak eskainiko ditu, ikastetxeak programaturiko eskola kiroleko jardueretan:

a) Benjamin kategoriako _____ talderi kirolean hasteko proze-



suan laguntza tekniko eta irakaskuntzako ematea. Kategoria horretako ikasle talde bakoitzak eskola kiroleko teknikari bakarra izango du, kirolean -hainbat kirolatan- lehen urratsak eman ditzaten ardura osoa edukiko duena, prozesuan zein kirol modalitate sartzen diren begiratu gabe.

b) Alebin kategoriako _____ talderen _____ modalitateko parte hartzeko lehiaketa jardueretan laguntza tekniko eta irakaskuntzako ematea.

c) Infantil kategoriako _____ talderen _____ modalitateko parte hartzeko lehiaketa jardueretan laguntza tekniko eta irakaskuntzako ematea.

Ikastetxean arituko diren eskola kiroleko teknikari guztiak bertako koordinatzailearen menpe egongo dira; haren ardura izango delarik egitarauak gainbegiratzea eta jarduera guztiak koordinatzea.

BIGARRENA: Kirol elkarteak ikastetxeak antolatu edota bultzaturiko heziketa eta teknifikazio jardueretan parte hartzera bultzatuko ditu kirol teknikari horiek.

HIRUGARRENA: Kirol elkarteko kirol teknikariak elebidunak izango dira, eskola kirolaren ohiko hizkuntza euskara izaten ahaleginduko dira eta B eta D ikastere-
duetako ikasleek eskola kirola euskaraz egingo dute.

LAUGARRENA: Kirol elkarteak ez du ikastetxe eremuan edota ikastetxearen ardurapean egingo diren kirol jardueraz aparte jarduerarik egingo ikasleekin.

BOSGARRENA: Kirol elkarteak nabarmentzen diren kirolariak aurkitzeko probak egin ahalko ditu, test egokiak eta abar erabiliz, aurkitze prozesuei buruz federazio bakoitzak emandako arauak jarraituz eta ikastetxeak baimena eman ondoren.

SEIGARRENA: Ikastetxeak _____ euro ordainduko dizkio kirol klubari zerbitzu teknikoengatik

ZAZPIGARRENA: Ikastetxeak errendimenduko lehiaketetan parte hartu nahia azalduko duten infantil kategoriako ikasleak (eta noiz edo noiz alebin kategoriako ere bai) kirol elkartean sar daitezela lagunduko du.

Lehiaketa horiek, halako jardueretarako Diputazioaren baimena duten federazioetako modalitateetan egingo dira eta horretarako prest diren kirol elkarten bitartez. Nolanahi ere, lehiaketa horiek partaide kopuru mugatu bati eskainiko zaizkio, Diputazioaren eta federazio bakoitzaren artean kirol modalitatea antolatzeko sinaturiko hitzarmenetan ezarritako baldintzen arabera.

Dena dela, kirol elkarteak bultzatuko du ikasle horien parte hartzea ikastetxeak antolaturiko kirol jardueretan eta ikastetxeko eskola kiroleko arduradunekiko harreman bideak bilatuko ditu, ikasleek heziketaren jarraipena egiteko, betiere bermatuz eskolako kirola, errendimendu helburuekin eta kirol elkarte baten barruan eginagatik ere, ikasleek heziketa osoaren parte izango dela.

ZORTZIGARRENA: Ikastetxeak bultzatuko du ikasleak kirol elkartean sartzea kadete kategoriatik aurrera, eskolatze prozesua amaiturik ere kirolean jarraituko dutela ziurtatzearen, bai errendimendu jarduerak aukeratu dituztenak, bai kirolean jolas moduan aritu nahi dutenak ere.

BEDERATZIGARRENA: _____ ikastetxeak hitzarmen honetan zehazten diren zerbitzu teknikoak gainbegiratuko ditu, eta _____ kirol elkarteak eskatuko dizkion datu eta informazioak emateko konpromisoa hartzen du.



HAMARGARRENA: _____ ikastetxeak ebatziko ditu hitzarmen honetako klausulak interpretatzean sor daitezkeen arazoak.


HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen honetako klausulak bete ezean hitzarmena indargabetua gera daiteke eta kirol elkarteak ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

HAMABIGARRENA: Hitzarmena _____ ko urriaren 1etik, _____ ko ekainaren 30 arte izango da indarrean, eta urtero luzatu ahal izango da, bi alderdiek horrela nahi badute.

Ados direla adierazteko, bi alderdiek sinatzen dute hitzarmena, goiburuan ageri diren leku eta egunean.

_____ IKASTETXEKO ZUZENDARIAK

_____ KIROL ELKARTEKO LEHENDAKARIAK



8. ELKARTEAREN AGIRIAK

